

Arrate baillaria



Arrate

Arrate baillaria

Aspaldi, 1600. urteko San Migel egunian, eta Domingo de Areeta alkate zala, halaxen erabagi eta idatzi zeben Eibarko Kontzejuan: *“La cofradía de Arexita es y se entiende todo lo que está de la casa de Urquizu abajo inclusa la dicha casa hasta Zaturio”*. Urtiak azkar pasatu dira eta Eibar ederto aldatu jaku, baiña Arrate Balliak lehengo tokixan jarraitzen dau. Eltzartzagatik hasi eta Saturixoraiño daren terrenuak osatzen dabe hau bailladiau, Zubiaga eta Argiano errekatxuen eta Arramendi inguruko lurak barne. Eta ez da larregi aldatu. Izan be, seguru asko, Arrate Ballia izango da gaur egun, Agiñaga baillariakin batera, basarri eta basarritarren mundua onduen gorde daben auzua. Nahiz eta lur aldetik baillara txikixa izan, basarri ugari topatuko doguz auzo honetan eta gehixenak martxan.

Arrate Ballia, esan biharrik be ez dago, Arrateko Basilikian inguruan bizi izan dan (eta bizi dan) baillaria da. Urtietan zihar Arexita eta Arizmendi izenegaz be ezagutu izan da (gaur egun oindiokan han dagoz izen bereko basarrixak) baiña aspaldi hartu zeban gaur egun Euskal Herri osuan hain ezaguna dan Arrate (edo Arriarte) izena. Berori izan da auzokide guztiak batu izan dittuan lekua. Mezetara bertara igotzen ziran, jai ezagunenak be bertakuak ziran eta Arraten egitten ziran pilota-partidu bizixenak, idi-proba gogorrenak eta dantzarik ederrenak. Tabernia be (gaur egun Kantabria izenez ezagutzen dana) aspaldittik dago Bekoetxe basarrixan lehelengo pisuan. Baiña Arrate Ballekuen bizitza ez da bakarrik tontor horretara mugatu. Maltzagak be garrantzi haundixa euki dau oin dala gitxira arte. 1955. urte ingurura arte jendez gainezka egoten zan jaixero Maltzaga, hango erromerixara inguruetako jende ugari juaten zan-eta dantzara: Arrate Balleko basarrietakuak, Kiñarragakuak, Azitain inguruak eta Soralueko basarritar batzuk be alkartzen ziran Maltzagako bentian inguruan domeka arratsaldia musika giruan pasatzeko asmuakin. Maltzagan bertan beste ermitta bi be bazeguzen, bata Arrate izenekua

eta bestia San Rafaelen omenez 1927xan egindakua. Bixak desagertu dira. Laugarren bat be badago auzuan, izen bereko basarrixan aldamenian daguan San Martin ermittia.

Eibarren maldarik ez da inun falta, baiña malda pikarra nunbaitten egotekotan, Arrate Ballian dago. Hangua bai goittik-beherako bidia! Hala eta guztiz be, lurra nahiko ona da eta, izardi asko bota eta gero, auzoko basarritarrak uzta ederrak etara dittue urtietan zihar. Garixa eta artua izan dira basarrixan oiñarrixa azken gizaldixotan, baiña beste barazki mordua be batzen da inguruetako lur jorixa aprobetxatuz eta ezin ahaztu mendixak emoten dittuan gaitzainak eta sagardua egitteko sagar gozuak. Baiña barazki, gari, fruta, arto eta gaiñontzekuetaz gaiñera, Arrate Balliak munduko beste auzo batek be emoten ez daben frutua emoten dau. Fruturik ederrena: umiak! Beste herri batzuetako umiak Paristik datozen bittartian, Eibar eta Elgoibar inguruok Arratetik bertatik gatoz, han sortzen da-eta bizitza ipoiñ zaharren arabera. Ez hori bakarrik. Umiak bertan sortziaz gaiñera, ezkongai billa dabillanak be Arratera jotzen dau, eta umiak osatu eta bedeinkatzen be badaki Arrateko Amak.

Arrateko basarri esanguratsuenak aittatzeko orduan, lehelengotik hasi eta azkenera arte egin biharko genduke, danak dake eta zer kontau. Batzuk hartzekotan, daken balore historiko eta artistikungaittik, Sagartegieta, Unzeta eta Barrenetxe dira beti be danon ahotan dabilguzenak. Etxe ederrak dira (Sagartegieta erdi-jausitta dago zoritxarez, baiña jauregi ederra izan da) eta izen haundixa euki dabe historixan zihar. Ezin ahaztu baiña beste guztiak. Arizmendixak be (Arizmendik, Arizmendi Goenak eta Arizmendi Sanjuanguak) sekulako garrantzixa euki dabe baillarian historixan eta badirudi XVII eta XVIII. mendietan Arizmendi basarrixan inguruan antolatzen zala auzuan bizitzia. Horretaz gain Lezeta, Kutunegieta, Argiñao, Arexita edo Pagoaga be izen ezagunak izan dira Eibarren.

APALATEGI / Apalatei

FIGXA TEKNIKIA	Egoeria	Gaur egun desagertuta dago.
	Distantzia	Udaletxetik 2 kilometrora.
	Altueria	90 metro.
	Datu aittagarrixak	<ul style="list-style-type: none"> - 1584an, Apalategi izeneko errota zeguan Ego erreka ertzian, Eltzartzaga eta Maltzaga artian. Errota moduan ezagutu zan hiru gizalditan zihar eta XIX. gizaldixan haunditu eta basarrixa egiñ zan aldamenian. - Azkenengo 100 urtietan, basarri, errota eta zentral elektriko moduan erabili izan da. - Mende honetan zihar, Nazabaltarrena izan da. Gizaldi hasieran Pedro Maria Nazabal zan ugazaba eta, 1960xan itxi zanian, beran ondorengua zan Klaudio Nazabal. - 1994an bota zan dana (zaharra eta barrixa). Errota zatixak Lantegi Eskolan gorde dira.

AREXITA HANDIKOA / Arikitxa Haundi, Arikitxa Behekua



Distantzia: 3 kilometro

Altueria: 220 metro

FIGXA TEKNIKIA	Datu aittagarrixak	<p>Juanita, Antonia, Eugenio eta Mari Tere Atxa Agirregomezkorta anai-arrebak dira basarrixan jabiak, baiña erreteruak bizi dira bertan oiñ dala 30 urtetik.</p> <ul style="list-style-type: none"> - *Jaso dogun basarrixan aittamenik zaharrena 1857kua da baiña basarrixak askoz zaharragua dala dirudi. - *1586. urtian Catalina de Arixita San Martingo seroria izan zan eta 1558xan, Pedro de Arixita Eibarko alkate. - *1600ian Urkizutik Saturixoraiño zeguazen basarri guztiak Arixitako kofradixia osatzen zeben eta garai horretarako seguru asko basarrixa jasota egongo zan. - Azken 100 urtietan gitxienez, Atxatarrak bizi izan dira bertan. Lehelengo erreteruak ziran (ugazaba Azkoitikua zan) eta oiñ 80 urte inguru, Jose Atxa Azpiri eta Ignazia Agirregomezkortak, erosi egiñ zeben.
-----------------------	---------------------------	---

AREXITA HEMENDIKOA / Arikitxa Txiki, Arikitxa Goikua



Distantzia: 3 kilometro

Altueria: 225 metro

Zer daken

Maria Gisasola Ugarteburu (70) eta Aitor Jauregi Gisasola (28).

ANIMALIXAK: Behiak (5, larrerakuak), oilluak (12), untxiak (15) eta izkua. Eusko Labela dake.

ORTUA: Porruak, patatak, tomatiak... (astian bi edo hiru aldiz jaisten dira plazara). Sagarrak, intxaurrek eta kiwixak.

LURRAK: 10 hektarea.

Datu aittagarriak

- (Begiratu *Arexita handikoa*)*.

- Gizaldi honen hasieran, Gisasola basarriko semia zan Florentzio Gisolak erosi zeban eta harrezkero Gisolatarrak bizi izan dira bertan.

- Gerran apurtu egiñ zan eta goitik behera barriztu bihar izan zeben.

- Basarriak teillatuan kurutzia daka.

- Florentzio Gisasola probalari ezaguna izan zan Eibarren.

ARGIANO (ARGIN AO) / Argiñao



Distantzia: 3,5 kilometro

Altueria: 240 metro



ETXEA TEKNIKIA

Zer daken

Felix Uriarte Astarloa (52), Kristina Uriarte Argiano (28) eta Oskar Lapazaran Etxeberria (29).

ANIMALIXAK: Untxiak (30) eta oilluak (30).

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako). Sagarrak, madarixak eta kiwixak.

LURRAK: 17 hektarea.

Datu
aittagarrixak

- Ezagutzen dogun basarrixan lehelengo aittamena 1747kua da. Urte horretan Martin de Argiñao bizi zan bertan, baiña lehenago be, Argianotar asko izan da ezaguna Eibarko historixan, izkribauak, alkatiak eta abadiak.

- Basarrixan beti Argianotarrak bizi izan dira.

- Bi bidar erre da: lehelengoz gerratian eta basarrixa osorik berregiñ bihar izan zan. Bigarrengoz oiñ dala 40 urte inguru.

- Basarritik probalari ezagunak urten dira, Martin Argiano eta Juakin Argiano "Argiñao".

- Basarri gaiñian Argiñao Gaiñ (goiko erretratuan) izeneko etxia jaso zeben 1995ian.

ARIZMENDI



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 300 metro

FITXA TEKNIKUA

<p>Zer daken</p>	<p>Bitorio Agirregomezkorta Agirregomezkorta (79), Juana Agirregomezkorta Elizburu (75), Nerea Agirregomezkorta Agirregomezkorta (45), Jose Luis Alberdi Uriguen (53) eta Izaskun Alberdi Agirregomezkorta (24).</p>
<p>Datu aittagarrixak</p>	<p>ANIMALIXAK: Behixak (10, larrerakuak), ardixak (100), oilluak (30). ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Basarri honi buruzko informaziñua 1498ko agirixetan agertzen da lehelengoz. Eibarko basarrixen artian aittamenik zaharrenetakua da berau. - Historixan zihar baillara osuari deitu izan jako Arizmendi eta basarrixa ArizmendiGantxegi izenekin be ezagutu izan da. 1741eko agirixetan ArizmendiArrieta izeneko basarri bat be agertzen da, seguru asko berbera. - Juan zan gizaldi amaieran basarrixa erre egiñ zan eta berrixa jaso bihar izan zeben. - Oingo ugazaben aittak, "Markos"ek, karga-jasotzen jarduten zeban eta oso ezaguna egiñ zan gerra aurretik 21 imiña gari jaso zittualako (imiña bakoitxak 11.5 kilogramo dakaz gitxi gora-behera). Orduko errekorra izan zan. - Akarteita eta ArizmendiGuena basarrixak be eurenak dira.

ARIZMENDI GOENAGA / Arizmendi Guena, Goengua

FITXA TEKNIKUA

<p>Egoeria</p>	<p>Hutsik dago.</p>
<p>Distantzia</p>	<p>Udaletxetik 4 kilometrora.</p>
<p>Altueria</p>	<p>315 metro.</p>
<p>Datu aittagarrixak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Basarri hau, 1747xan agertzen jaku lehelengoz, Arizmendide suso izenekin eta bertan Domingo de Agirrebeña bizi zan. Abizenan aittamena, Joan de ArizmendiGoeta, zaharragua da, 1600ekua. - Badakigu, 1851an oindiokan martxan zeguala, bertako jabiak Arrateko kapeilluari anega bat gari emon zetsan eta. Urte batzuk beranduago itxi egiñ zan eta gizaldi honetan zihar Arizmendikuen txabola moduan erabili izan da.

BARRENETXEA / Barrenetxe



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 275 metro

FITXA TEKNIKUA

Zer daken

Maria Lourdes, Maria Jesusa eta Florentina Unzetabarrenetxea Epelde. Kalian bizi dira baiña sarritan igotzen dira bertara.

Datu aittagarriak

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako). Intxaurrak, sagarrak eta pikuak.

LURRAK: 14 hektarea.

- Basarrixan lehelengo aittamena 1770ekua da, baiña arkitekturian arabera, basarrixa XVII. gizaldi hasierakua dala dirudi. Garrantzi artistikua daka, batez be, gipuzkoar estiloko ipar-fatxada.
- Barrenetxe basarritik jende ezagun asko urten da. Esate baterako, 1714an, Martin de Unzetabarrenetxea da Eibarko alkate; 1794ko gerratian, Gipuzkoa Frantzia menpe jausi eta gero, Eibarrek Bizkaira batzia erabaki zebanian, Rafaelde Unzetabarrenetxea zan Eibarko errejidore. Horretaz gaiñera, beste hamaika alkate, sakristau eta idazkari emon ditu Barrenetxe basarriak.
- Bertakuen abizenakin nahiko saltsa haundixa egon da beti. Barrenetxe beti familixia berana izan bada be, batzuk Unzetabarrenetxea erabiltzen zebe bittartian, beste batzuk Unzeta erabiltzen zebe eta beste batzuk basarrixan izena, Barrenetxe. 1812xan Rafaelde Unzeta bizi zan bertan eta 1894an Rafael Barrenetxea Gandiaga.
- Oingo ugazabak 1974an jaitsi ziran kalera eta orduan kendu zittuen zaldi, bihor, behi eta bestelakuak.
- Basarrixan azpikaldian izen bereko errota dago, Barrenetxe-Errota. Mende honen erdikaldera arte erdi basarri eta erdi errota izan zan. Gaur oindiokan tente dago baiña hutsik eta nahiko egoera txarran.

BARRUNDIA / Barrundi



Distantzia: 3 kilometro

Altueria: 200 metro

Zer daken

Jose Maria Unzetabarrenetxea Oregi (74), Luisa Lizarralde Uribeetxeberria (67), Jose Ugarteburu Arrillaga (44), Maria Jose Unzetabarrenetxea Lizarralde (41), Irati Ugarteburu Unzetabarrenetxea (11) eta Aitor Ugarteburu Unzetabarrenetxea (8).

ANIMALIXAK: Behiak (3, larrerakuak), txahalak (3) eta oilluak.

ORTUA: Sasoiko barazkixak (noixian behiñ jaisten dira merkatu-plazara).

LURRAK: 6 hektarea.

Datu aittagarriak

- 1588xan Katalina de Barundia San Martin ermittako seroria zala badakigu. 1747. urtian Barundia Abeltxe izeneko basarri baten Francisco de Iriondo bizi zan. Seguru asko basarri berbera izango da.
- Juan zan gizalditik Unzetabarrenetxeatarak bizi izan dira bertan.
- Azkenengoz 1995ian barriztu izan da.

ELTZARTZAGA / Eltzartza



Altueria : 110 metro

Egoeria

Hutsik.

Datu
aittagarrixak

- Azkenengo sei urtietan hutsik egon da eta ordura arte erreteruak egon ziran bertan.
- 1601ekua da basarri honetaz ezagutzen dan lehelengo aittamena. Badirudi, sortu zanian, Unzueta jauregiko (gaur egun La Salle ikastetxia dana) zerbitzarixentzat egindako etxia zala. Jauregixan inguruan herritxo bat sortu zan. Herri txiki moduko hori, jauregixak Unzuetataren toria, ermittiak (Azitaingo Andra Mariaren Jasokundearen ermittia), errotiak, (Aparategko errota), zerbitzarixen etxiak (Eltzartza) eta inguruko basarrixak osatzen zeben.
- Gizaldi honetan Azpiritarrena izan da. 1925. urteko basarri-zerrendan agertzen danez, sasoi horretan Kandido Azpiri zan ugazabia eta azken urtietan aurrekuan ondorengua dan Juan Basilio Azpirina izan da. Oñ dala 20 urtera arte erreteruak bizi izan dira bertan, baiña gaur egun hutsik dago. Bi etxebizitza zeren bertan. Oingo jabia, Jose Agustin Alonso da.
- Eguzkixak gehixen jotzen zeban basarrixia zala esaten daben esaeria be badago.

GAZTELU



Distantzia: 4,5 kilometro

Altueria: 365 metro

Zer daken

Juan Leturiondo Alberdi (64).

Datu
aittagarrixak

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako). Etxe inguruan sagarrondiak eta piñua.

LURRAK: 10 hektarea.

- Gaztelu basarrixan lehelengo aittamena 1851ko agirixetan jaso ahal izan dogu, baiña basarrixa zaharragua da.
- 1931. urtian Ametzako semia zan Alejandro Leturiondok erosi zeban eta bertara etorri zan bizi izatera familixiakin.
- 1994an konpondu dabe azkenengoz.

IÑARRA / Iñarre, Iñarbe



Distantzia: 3 kilometro

Altueria: 210 metro

FITXA TEKNIKIA

Zer daken

Frantzisko Aldazabal Arrillaga (71) eta Ines Azpiri Garitaonaindia (70) dira jabiak baiña ez dira bertan bizi.

Datu aittagarriak

ANIMALIXAK: Behiak (4, larrerakuak), txahalak (2).
ORTUA: Sasoiko barazki eta frutak (etxerako).

- Iñane basarrixari buruz ezagutzen dan lehelengo aittamena 1625. urtian Lope de Isastik idatzittako lanian topatu ahal izan dogu. Ordurako, beraz, basarrixa tente zeguan. Oiñetxia zan eta abizena nahiko ezaguna izan da Eibarren XV. gizaldittik aurrera. Badakigu 1498. urtian Lope de Iñana izeneko gizon bat bizi zala Eibarren eta hortik aurrera izen bereko alkate, izkribau eta abade ugari egon da Eibarren.

- 1747xan Joseph de Eguren bizi zan bertan,
- Badirudi sasoi baten Iñanaurbarizenakin be ezagutu izan zala.
- 1996. urtian barriztu da azkenengoz.

KANTABRIA



Distantzia: 7 kilometro

Altueria : 525 metro

Datu aittagarrixak

Maite Iriando eta beran familia bizi dira bertan.

- Nahiz eta gaur egun Kantabria izenakin ezagutu, beran jatorrizko izena Amate-Bekoetxe zan.
- Behekaldia basarri moduan erabiltzen zan arren, gaiñekaldia taberna moduan erabili izan da aspalditik. 1974an barriztu egiñ zan eta ganaua kendu. Harrezkero taberna bakarrik da.

KUTUNEGIETA BARRENA / Barrenengua, Narnu



Distantzia: 3,5 kilometro

Altueria : 285 metro

FITXA TEKNIKIA

Egoeria

Hutsik.

**Datu
aittagarrixak**

- Basarrixaren gaiñian ezagutzen dan aittamenik zaharrena 1857kua dan arren, badirudi etxia gitxienez XVI. gizaldikua dala. Kutunegietatarren oiñetxia da. Armarrixa daka ate gaiñian.
- Kutunegieta izeneko hiru basarrixak, Kutunetxiak edo Kutunexak izenekin be ezagutzen dira. Eta Kutunexa Barrenengua, Narnu izenakin da ezagunagua.
- *1648ko agirixetan Pedro de Kutunegietak hidalgixa titulua lortu zebala badakigu, odol garbixa zekela frogatzen zeban agirixa. 1613. urteko agirixetan, barriz, Antonio López de Isasi de Kutunegieta Mendibeltzu, Isasiko etxeko jauna zala agertzen da.
- Gerran guztiz erre zanez, gerra ostian basarrixan zati haundiña berregiñ egiñ zan. Barruko guztia barriztu bihar izan zan eta basarrixak piskat haunditu zeben.
- Basarriko azkenengo bizilaguna Pedro Arrizabalaga Agirrebeña izan da.

KUTUNEGIETA ERDIKOA / Erdiko



Distantzia: 3,5 kilometro

Altueria: 290 metro

Zer daken

Jose Maria Alberdi Iraolagoitia (72) eta Eugenia Uriarte Larrinaga (68) .

**Datu
aittagarrixak**

ANIMALIXAK: Behiak (6), txahalak (7), oilluak (10), ardixak (10) eta idixa. Eusko labela dake.

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako).

- (Begiratu Kutunegieta Barrenengoa)*.
- Basarrixaren gaiñian aittamenik zaharrena, 1851kua da.
- 1920. urte inguruan, Bittor Uriartek erosi egiñ zetsan Bizente Lezetari.
- Basarrixak oso kurutze politta daka atzekaldian.

KUTUNEGIETA GOENENGOA / Guenetxe, Guenengua



Distantzia: 3,5 kilometro

Altueria: 295 metro

FITXA TEKNIKUA

Zer daken

Kandido Zendoia Argiano (77) eta Justina Azpiri Zendoia (79).

ANIMALIXAK: Behiak (3, larrerakuak), txahalak (3) eta astua.

ORTUA: Oso txikixa, etxerako. Mendixan piñuak eta paguak.

LURRAK: 16 hektarea.

Datu aitagarrizak

- (Begiratu Kutunegieta Barenengoa)*.

- Kutunegieta basarrixaren gaiñan lehelengo aittamen idatzixa 1857kua dan arren, badirudi basarrixa askoz zaharragua dala.

- Juan zan gizaldi amaieran Salvador Azpirik erosi zeban. Lehenagotik be Azpirtarrak errentero bizi ziran bertan.

- Gerran apurtu egiñ zan eta ixa osorik barriztu bihar izan zeben.

- Eibarren gelditzen dan haritzik ederrenetakua daka atari parian.

LAZARETO



Distantzia: 2,5 kilometro

Altueria: 140 metro

Zer daken

Teodosio De la Viuda González (52), Rosario Urkia Lasuen (54) eta Francisco Javier De la Viuda Urkia (28).

Datu
aittagarrixak

ANIMALIXAK: Oilluak hazten dittue. Normalian 500-600 oillo eukitzen dittue.

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako). Sagarronduak (20) eta madarionduak.

- Udaletxian jabegokua izan da beti. Hasiera baten ospitale moduan erabili izan zan, hortik beran izena, nafarrerixiari "Lazaron gaixotasuna" deitzen jakolako.

- Azken gizaldiotan errentero asko euki izan dittu. 1939tik hona De la Viudatarak bizi izan dira bertan.

LEZETA



Distantzia: 2,5 kilometro

Altueria: 200 metro

FITXA TEKNIKUA

Zer daken

Nikolasa Larreategi Agirregomezkorta (93), Josefa Laskurain Kortaberria (66) eta Jabier Lezeta Larreategi (49).

Datu aittagarriak

ANIMALIXAK: Oilluak (60). 1996ko udazkenian kendu dabe ganaua.
ORTUA: Porruak, azak, letxugak eta lekak (etxerako).

- Lezeta izena Eibarren 1498xan agertzen da lehelengoz. Urte horretan Pedro de Lezeta zan herriko arbitrua. Basarrixan lehelengo aittamen ezaguna 1747kua da. Urte horretan, Matías de Lezeta bizi zan bertan eta gaur egunera arte Lezetatarrena izan da.

- Gaur egungo basarrixa 1921ian egiñ zan (eta horren frogarako ate gaiñian dagan inskripziñua). Urte horretan basarri zaharra zana erre egiñ zan. Etxe barrixa, lehengua baiño 20 metro beheratxuago egiñ zebeñ eta zaharra (*Lezeta Zahana*), barriztu eta txabola moduan laga zebeñ. Oindiokan tente dago eta txabola moduan erabiltzen dabe.

- Basarritik urten diran pertsona ezagun guztien artian, Gregorio Lezeta aittatu bihar da, Udal zinegotzixa izandakua.

LEZETA ABELETXE



Distantzia: 3 kilometro

Altueria: 290 metro

Zer daken

Antonio Azpiri Larrañaga (64), Margarita Baskaran Bidaguren (56), Iñaki Azpiri Baskaran (31) eta Aitor Azpiri Baskaran (28).

Datu
aittagarrixak

ANIMALIXAK: Behiak (4), txahalak (4), zaldixak (3) eta oilluak.
ORTUA: Sasoiko barazkixak, patatia, porrua eta babia gehixen bat. Astian 3 aldiz jaisten dira merkatu-plazara.
LURRAK: 8 hektarea.
- 1851kua da basarri honen gaiñian ezagutzen dogun lehelengo aittamena. Badirudi, jatorrixan, *Lezeta* basarrikuen jabegokua zala.
- Antonio Azpirik eta Margarita Baskaranek 1990ian erosi zeben.
- 1984. urtian barriztu zan azkenengoz.

MALTZAGAKO BENTA edo MALTZAGA BERRI

Egoeria	Desagertuta.
Distantzia	3 kilometro.
Altueria	75 metro.
Datu aitagarrizak	<p>- Basarri honek oso historixa luzia euki dau. Beranduago basarrixa egongo zan tokixan, Erdi Aruan Udalan jabegoko bentia zeguan eta aldamenian, intxaurrondo baten azpitan, humilladerua. Bi urtero subastan alkilatzen zan bentia. 1637xan Francisco de Lizaurzabal eta Maria de Asube bizi ziran bertan.</p> <p>- 1783an, Sagarteiko semia zan Bentura de Susttaetta presbiteruak, Ramon Azkarate elgoibartarra kontratatu zeban Arriarteko Ama edo Arritokieta izeneko ermittia egiñ zeixan. Ermita barrixa egittia 29.224 errial kostatu izan zan.</p> <p>- Ez dakigu ermittia benta zaharra zeguan toki berian egiñ zan edo ez, baiña dakiguna zera da, frantsesen kontrako gerran erre eta gero, 1821ian ermittia bota eta gaiñian benta barrixa egiñ zala. Juan Antonio de Susttaetta, Sagarteiko semia, zan orduko ugazaba. Harrezkero, etxe barrixa benta eta basarri moduan egon zan zabalik gerra osterarte. Urte horretan zihar, Maltzagak garrantzi haundia hartu zeban. Lehelengo aduania bertan zegalako eta, 1887tik aurrera, trenbidia Eibarrera heltziakin batera, bidegurutzeta eta geldiduna inportantia zalako. Bide Nagusi biren arteko bidegurutzian zeguan, Elgoibartik Eibarrera zetorrena eta Maltzagatik Soraluze eta Bergara ingurura zoiana eta merkataria asko eta asko pasatzen zan bertatik. Ondarrutik Madridera mandogaiñian eruatzen zan arraiña be bertatik pasatzen zan. Alfonso XIIIa, Migel Unamuno eta beste hainbeste izen ezagun pasatu zan Susttaetarren bentatik. 1927xan San Rafaelen ermittia jaso zan aldamenian.</p> <p>- 1955. urtera arte, erromerixia egitten zan domeka arratsaldero benta onduan. Inguruko erromerixarik ezagunenetakua zan eta Arrate Baille eta Soraluzeko basarritar gehixenak juaten ziran bertara.</p> <p>- Gerran erre egiñ zan eta erdixa jausi. Bertoko jabiak, Kaietano Susttaetak, etxe barrixa egiñ zeban piskat goratxuago eta hara juan ziran bizi izatera. Gaur egun, Jesusa Susttaeta bizi da bertan. Etxe barrixa autopista aldamenian dago eta Maltzaga Barri edo Kaietanonekua izenekin ezagutzen da.</p> <p>- Bentia konpondu egiñ zeben eta beste 30 urtitan zihar almatzen moduan erabili izan zan. 1975. urte inguruan Delteco enpresia egitteko bota zeben.</p>

MALTZAGA ERDIKOA / Maltza Erdikua

FIGXA TEKNIKUA	Egoeria	Desagertuta.
	Distantzia	3 kilometro.
	Altueria	75 metro.
	Datu aittagarrixak	<ul style="list-style-type: none"> - Maltza Goikua eta Maltzako Bentian artian zeguan, eskolen aldamenian. - 1860ko agirixetan, Maltza Hemetkua izenagaz agertzen da. - 1888xan Joaquin Iraolagoitia bizi zan bertan. Gizaldi honen hasieran Juana de Arteaga zan basarrixan jabia. - Autopistia egitterakuan bota zan, 1970. urte inguruan. - Ez zan Maltzagako basarrixen artian zaharrena, baiña zahar itxuria zekanez, Maltza-zana esaten zetsen.



Maltzaga 1975. urtian

MALTZAGA GOIKOA / Maltza Goikua

FIGXA TEKNIKUA	Egoeria	Desagertuta.
	Distantzia	3 kilometro.
	Altueria	75 metro.
	Datu aittagarrixak	<ul style="list-style-type: none"> - 1747xan Pedro de Eguluz bizi zan bertan. Urtietan zihar Maltza Handikua izenakin be ezagutu izan da. - Maltzagan dagan txaletan inguruan zeguan eta autopistia egitteko bota zan, 1970. urte inguruan. - Sarteiko Sustaetatarrena zan eta "Artona" izenakin be ezagutzen zan, bertan bizi ziranetako bat "Arto" izenakin ezagutzen zalako gure herrixan. Gerra ostian Sarteitik Maltzagara bueltatu ziran Sustaetatarrak. - Kaietano Sustaetak Maltzaga Barri txaleta egiñ zebanian basarrixan zatirik haundiña bota zeban eta 1970. urte inguruan, autopistia egiñ zanian, beste guztia. Gaur egun horma batzuk besterik ez dira gelditzen.

MENDIGOITIA / Mendigoitxi



Distantzia: 2,5 kilometro

Altueria: 220 metro

FITXA TEKNIKUA

Zer daken

Bizente Areta Lezeta (59), María Asunción Azpíri Mandiola (51), Birginia Areta Azpíri (28), Jose Antonio Egurrola Bilbatua (30), Nerea Areta Azpíri (26) eta Aitziber Areta Azpíri (17).

ANIMALIXAK: Behiak (10, esnetarakuak), txahalak (10), idixak (2), oilluak (60).

ORTUA: Sasoiko barazkixak. Negutegixak dakez eta egunero jaisten dira plazara. Sagarrak eta intxaurrak.

LURRAK: 25 hektarea.

Datu aittagarriak

- 1625eko idatzixetan agertzen jaku basarri honi buruzko lehelengo aittamena. *Mendigoitia* abizena, dana dala, lehenagotik zan ezaguna Eibarren. 1606. urtian hil zan Flandesko gerran Eibarren jaixotako *Mendigoitia* Kapitana.

- Basarrixa, gitxienez azken 200 urtiotan, Aretatarrena izan da eta eurenak izan dira be bai *San Martín* eta *Mugiza* Zahar basarriak. 1812. urtian Andres de Areta zan *Mendigoitxi* basarrixa ugazaba.

- 1935ian erre egiñ zan eta osorik barriztu bihar izan zan. 1963an berriro barriztu zan eta 1996xan teillatua eta fatxadia konpondu jakoz.

- Basarrixa emon dittuan pertsonai eta kirolari ezagunen artian Bizente Areta "*Mendigoitxi*" probalarixa dakagu.

MUGITZA BERRI / Muitza Barri



Distantzia: 6 kilometro

Altueria: 480 metro

<p>Zer daken</p>	<p>Antonio Aldazabal Gisasola (80), Teresa Arrillaga Arrillaga (74), Iñaki Aldazabal Arrillaga (42), Arantxa Muñoa Aldasoro (40) eta Mireia Aldazabal Muñoa (12).</p> <p>ANIMALIXAK: Oilluak (10) eta oillaskuak (10). 1991ian kendu zeben ganaua.</p> <p>ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako). Lurretan piñua dake sartuta.</p> <p>LURRAK: 8 hektarea.</p>
<p>Datu aittagarrixak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Nahiko basarri barrixa ei da eta ez dakagu beraren gaiñian aittamen idatzirik. Azken 150 urtietan Aldazabaltarrak bizi izan dira bertan. - Berez Gorosta Baillia izan biharko litzakian arren, gehixenetan Arrate Baillian sartzen da, seguru asko Arratetik urrian dagualako eta beste Mugitza bixak Arrate Baillikuak ziralako. - Oñ 30 urte inguru konpondu zeben azkenengoz. - Ogixantzat laba ederra daka sarreran. - Arrate Etxebarri izenakin be ezagutu izan da. - Pelotari onak emon dittu basarri honek. Lehelenguetakua Martin Aldazabal "Belarri" izan zan. Zestan jardun zeban 1915-1925 inguruan. Ointsuagokuak, Jose Antonio Aldazabal "Aldazabal I" eta Iñaki Aldazabal "Aldazabal II" izan dira eta, gaur egun gazte mailletan dabillena, Inazio Aldazabal, "Aldazabal III" da.

MUGITZA TXIKI / Muitza Txiki



FITXA TEKNIKIA

Egoeria	Jausitta.
Distantzia	6 kilometro.
Altueria	415 metro.
Datu aittagarrixak	<ul style="list-style-type: none"> - Badirudi basarri hau jatorriz <i>Mugitza Zahar</i> basarrixan txabolia zala, nahiko basarri txikixa zan eta. - Gizaldi honetan, erreteruak euki ditu eta urte askotan zihar basarri moduan erabili izan da. - 1975. urtian hustu zan eta gaur egun horma batzuk bakarrik gelditzen dira tente.

MUGITZA ZAHARRA / Muitza Zahar



FITXA TEKNIKIA

Egoeria	Jausitta.
Distantzia	6 kilometro.
Altueria	410 metro.
Datu aittagarrixak	<ul style="list-style-type: none"> - Lehelengo aittamena 1767koa da. Urte horretan <i>Lozenzo</i> izeneko bateron bat bizi zan bertan. - 1851. urtian <i>Mugitzako</i> ugazabak anega bat gari emon zetsan Arrateko kapeillauari. - 1936xan <i>Fausto Areta</i> da bertoko ugazaba. - Basarriko azken bizilagunak <i>Eugenio Uriarte</i> eta beran familia izan ziran. - Sasoi baten sagartziz beteta zeguan <i>Mugitza</i> ingurua. 1975. urtiaz geroztik piñua dago sartuta basarrixan inguruan eta basarri bera txabola bihurtuta dago. <i>Mendiño</i> txibasarrikuena da aspalditik.

PAGOAGA / Paua

Egoeria	Jausitta.
Distantzia	5 kilometro.
Altueria	330 metro.
Datu aittagarrixak	<p>- 1595. urtian, Domingo de Pagoaga Eibarko sindiko prokuradoria zan. Hori da Pagoagatarretaz aittamenik zaharrena.</p> <p>- 1625. urteko agirixetan Pagoaga izeneko etxe bat agertzen da. Badirudi hau izan leikiala basarri honen gaiñian dakagun lehelengo aittamena. Hurrengo gizaldixan, 1747xan, Domingo de Pagoaga zan basarriko nagusixa.</p> <p>- 1851. urteko beste agiri batzuetan atzera agertzen da Pagoaga basarrixa. Urte horretan, Pagoagako jabiak anega bat eta kuarta bat gari emon zetsazen Arrateko kapeilluari.</p> <p>- 1936xan Jose Antonio Pagoaga da ugazaba. Politikua zan eta Donostian bizi zan arren, beriak ziran Arrate Bailleko eta Gorosta Bailleko basarri asko eta asko.</p> <p>- Sasoi horretan bertan bizi ziranak Elgoibartik etorritako Gregorio Alberdi eta beran familixia ziran. Euren etxian ez zan sekula musikarik falta. Gregorio soñujolia zan eta beran andria, Pantxika, panderojole eta abeslari aparta. Diskuak be grabatu zittuan Pantxikak.</p> <p>- Gerratian kañoikada batek jota erre egiñ zan eta orduandittik hutsik dago. Gaur egun harri batzuk besterik ez dira gelditzen, Erdikotik Gaztelua bittartian. 1944 urtiaz geroztik, Erdiko basarrikuena da.</p>

PAGOAGA ABELETXE / Paua Abeletxe



Egoeria	Gaur egun soziedadia da.
Distantzia	6,5 kilometro.
Altueria	380 metro.
Datu aittagarrixak	<p>- Lehelengo aittamena 1857kua da eta jatorriz Paua basarrixan abeletxia zan.</p> <p>- Gerra ostian Zesteroquanekuak erosi zeben eta bertan bizi izan dira 1989ra arte. Harrezkero kuadrilla batek daka alokatuta eta soziedade moduan erabiltzen dabe.</p>

PARTXUA

Egoeria	Desagertuta.
Distantzia	6 kilometro.
Altueria	530 metro.
Datu aittagarriak	<ul style="list-style-type: none"> - 1747. urteko agirixak diñenez, Domingo de Mendiola eta Martin de Barrenetxea bizi ziran orduko sasoian <i>Arraten</i>. Basarri hau <i>Arrate-etxe</i> eta <i>Arrate-Partxua</i> izenegaz be ezagutzen zanez, hori izango da seguru asko <i>Partxua</i> basarrixaren gaiñian dakagun daturik zaharrena. - Beran sorreran, erromesentzako atsedenekua izan ei zan. Deba baillaratik kostalderuntz edo kostaldetik barrukaldera zoiazan erromesak, Arrateko etxe honetan billatzen zebeñ atsedena, jana eta ur gozua. - 1810eko martixan 13an, Manuel Antonio Muruak 19.320 errialetan erosi zeban. Hillabete beranduago Murua horrek Jose Joaquin Suinagari saldu zetsan prezio berian. - Azken bizilagunak Roman Otalora eta beran familiaia izan ziran. 1960. urte inguruan Arrateko Don Pedro abadiak erosi egiñ zeban eta hortik gitxira bota. - Elixian ezkerrealdian zeguan. Kortarako sarreria atzeko aldian zekan eta sarrera nagusixa elixako atarittik. Sarrerako horma hori oindiokan tente dago; elixako atian ezkerrealdia leiho bi dakazen hormia da.



Arrateko elixia eta bere ezkerretara Partxua basarrixa

SAGARTEGIETA / Saartei



Distantzia: 3,5 kilometro

Altueria: 150 metro

Egoeria

Datu aittagarrixak

Hutsik. Jesusa Sustaetarena da.

- Gaur egungo etxia 1655ekua da, nahiz eta XVIII. gizaldixan barriztuta egon. Ate gaiñian hala diño: "Vinculada en 13 de mayo de 1655 y corroborada en 23 de mayo de 1765". Eibarren zeguazen 18 Oiñetxietako bat da.
- Sagartegietatarrak 1513. urtian lortu zeuben, odol garbixa zekela ziurtatzen zeban hidalgixa titulua. XVIII. gizaldira arte eurak bizi izan ziran jauregixan. Sagartegieta abizendun azkena Maria de Sagartegieta izan zan. XVIII. gizaldi erdikaldian Mendaroko Sustaetatar batekin ezkondu zan eta geroztik Sustaeta eta Sagartegieta izenak batera juan dira. 1783. urtian Bentura Sustaeta zan ugazaba eta beran ondorengua da gaur egun Maltzagako txaletian bizi dan Jesusa Sustaeta.
- Dirudienez, jatorriz basarrixa zan eta gaiñian jaso zan jauregixa. Jauregixa izan zan 300 urtetan zihar eta juan zan gizaldi erdikaldetik aurrera berriz basarri moduan erabili izan da. Karlistaden ostian, Sagartegieta-Sustaetatarak Maltzagako bentara juan ziran bizi izatera eta Sagartegieta errentan ipini zeuben. Bertoko azken erreneteruak Bitor Kortaberria eta Eugenia Unzueta izan ziran, gizaldi honen erdikaldian.
- Eibarko basarriren artian seguru asko balio historiko-artistiko haundiña dakana izango da. Estilo barroko eta neoklasikoak dittu eta ate gaiñian "Soy Sagartegieta" diñuan armarrixa daka.
- Tente dago, baiña aspalditik hutsik daguanez, nahiko egoera txarrian.

SAN JUAN



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 285 metro

FITXA TEKNIKIA

Zer daken

Juana Agirre Unzetabarrenetxea (82), Andres Armaolea Agirrebeña (73), Justo Izagirre Arrizabalaga (51), Bizenta Armaolea Agirre (48) eta Maria Angeles Barrenetxea Armaolea (25).

Datu aittagarrixak

ANIMALIXAK: Behiak (3 esnetarakuak eta 2 larrerakuak), txahalak (5) eta astua. Egunero jaisten dira esnia saltzera.

ORTUA: Sasoiko barazkixak (lantzian behiñ jaisten dira plazara). Sagarrak eta pikuak.

LURRAK: 7 hektarea.

- 1726ra arte Arizmenditarrena zan eta Arizmendi Sanjuangua izenakin ezagutzen zan. Urte horretan Domingo Arizmendik Errebal kaleko komentuko Agustina monjeri saldu zetsazen basarrixa, lurra eta sagazitxak, 1.300 dukadotan. 1747xan Fernando de Acha bizi zan bertan.

- Urtietan zihar monjena izan eta gero, 1810eko ekaiñan 24an Donostiako Juan Ignacio Echeandiak erosi zeban 13.850 errialetan. Bost hillabete beranduago, Manuel Antonio Murua eibartarrari saldu zetsan 15.000 errialetan.

- Juan zan gizaldi amaieran oingo familixian amamak erosi zeban, Neberako alabia zan Maria Antonia Agirrebeñak.

- 1993an basarrixa goitik behera barriztu zan eta sasoi bateko etxian zati gitxi gelditzen dira: behekaldeko horma pare bat eta armarrixa. Armarrixan, arte bat eta basurde bat dakaz. Barrizterakuan, kortan, arku eta leiho erromanikuak eta giza-hazurrak agertu ziran.

SAN MARTIN



Distantzia: 2,5 kilometro

Altueria: 200 metro

Zer daken

Irene Gandarias Narzabal (77), Lourdes Leniz Gandarias (36), Jesus Unamunzaga Arrizabalaga (37) eta Gaizka Unamunzaga Leniz (6).

Datu aittagarrixak

ANIMALIXAK: Behixa, txahala eta astua.

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako).

- Eibarko beste basarri batzuen kasuan gertatzen dan legez, *San Marti*n historixia be aldamenian dagan ermittara lotuta dago eta seguru asko, jatorriz, serora-etxia izango zan.

- Basarrixa zein urtekua dan ez dakigu. Dakiguna zera da, ermittia 1556rako jasota zeguala eta Jose eta Joakin San Martinek 1730ian eskatu zebela odol garbikuak zirala frogatzen zeban hidalgixa agirixa.

- 1810ian, Udalak, Eibarko serora-etxe guztiak legez, *San M artin* saldu egiñ zeban. Maiatzan 13an Nikolas Aranberrik 10.050 errialetan erosi zeban. 1814ko urtarrillan 14an, Aranberrik Antonio Areta eta Francisca Laskuraineri saldu zetsan eta orduandittik, *M endigo itiko A retatarrena* da.

- Gaur egun *San M artin* basarrixan bizi dan Irene Gandariasek esandakuan arabera, sasoi baten basarrixa arditxabola moduan erabili izan zan. Itxuria danez, erre egiñ zan eta gero egiñ zan gaur egun ikusi leikian basarrixa.

SUMENDIAGA BEHEKOA / Sumendixa Behekua



Distantzia: 2,5 kilometro

Altueria: 200 metro

FITXA TEKNIKIA

Zer daken

Kandido Baskaran Azpitarte (70), Miren Iriondo Rementeria (66), Iñaki Baskaran Iriondo (36), Natividad Baskaran Iriondo (40), Juan Kruz Arizaga Lizarralde (41), Aintzane Arizaga Baskaran (15) eta Olatz Arizaga Baskaran (9).

Datu aittagarrixak

ANIMALIXAK: Txahalak (18), oilluak (50).

ORTUA: Sasoiko barazkixak. Egunero jaisten dira plazara.

LURRAK: 11 hektarea.

- *Basarri honen gaiñian lortu dogun lehelengo aittamena 1625ekua da. Dana dala, lehenago be agertzen da Sumendiaga abizena Eibarren. 1586xan Maria Magdalena Sumendiaga zan Arrateko seroria eta hamar urte beranduago, 1.596xan, Juan de Sumendiaga Eibarko alkate izendatu zeben. Horrek berorrek odol garbixa zekala frogatzen zeban agirixa lortu zeban 1620xan.

- *Jatorriz, Sumendixa Goikua eta Sumendixa Behekua basarri bakarra ziran eta 1747ian Francisco de Ugalde bizi zan bertan.

- *Ipoiñ zaharrak diñenez, basarrixak hiru izen euki dittu. Hasieran Mendibeltzu zan eta gero Eguzkitza izenakin be ezagutu ei zan. Azkenik, birritan erre zala-ta, Sumendiaga izena emon ei zetsen. Mendibeltzu eta Eguzkitza benetako izenak edo gatzizenak ziran ezin izan dogu jaikin, baiña jakin badakigu, 1613. urtian Isasiko Jauna, Antonio Lopez de Isasi Kutunegieta Mendibeltzu zala. Dana dala, Elgoibarren Mendibeltzu izeneko basarrixa dago eta bixen arteko nahasteren bat be izan leike.

- Juan zan gizaldittik hona gitxienez, Baskaran familixia bizi izan da bertan. Basarriko semien artian, ezin dogu ahaztu Martzelino Baskaran Larreategi (1871-1952). Armagillia lanbidez, 1898. urtian Agrupación Socialista sortu zeban, Gipuzkoako Metalgintza Federakundeko presidentia izan zan, ALFA Kooperatibako Administrazio Kontseilluko lehelengo presidentia eta Udaletzeko Alkate-Tenientia 1919. urtian.

- 1996xan barriztu da azkenengoz.

SUMENDIAGA GOIKOA / Sumendixa Goikua



Distantzia: 2,5 kilometro

Altueria : 200 metro

PITXA TEKNIKIA

Zer daken

Jose luis Urzuriaga Iete (65), Maria Begoña Bollar Mendiola (65), Lourdes Urzuriaga Bollar (40), Markos Ubera Zabala (47) eta Mirari Ubera Urzuriaga (20).

Datu
aittagarrixak

ANIMALIXAK: Behiak (20, larrerakuak), astuak (2), oilluak (20), untxiak (15).

ORTUA: Sasoiko barazkixak, sagarrak eta intxaurrak, (astian lau bidar jaisten dira merkatu-plazara).

- (Begiratu Sumendiaga Behekoa)*.

- Pablo Urzuriaga eta Frantziska Letek gerrate aurretik erosi zeben basarrixa.

- 1996xan barriztu da azkenengoz.



UMAIO / Umaixo



Distantzia: 7,5 kilometro

Altueria: 430 metro

ETXEA TEKNIKUA

Zer daken

Ana Iriondo da jabia. Luis Maria Lazpita Sanz (46), Maria Jesus Agirregomezkorta Etxeberria (44), Igone Lazpita Agirregomezkorta (21), Ainhara Lazpita Agirregomezkorta (20) eta Alaitz Lazpita Agirregomezkorta (14). Kalian bizi dira baiña sarritan igotzen dira.

Datu aittagarriak

ANIMALIXAK: Zaldixak (3, zaldigaiñian ibiltzekuak), ardixak (8), ahuntzak (1), untxiak (6), oilluak (7), bilixak (2), antzarrak (3) eta txarria.

ORTUA: Sasoiko barazkixak (etxerako). Kiwixak, intxaurrak, makatzak eta sagarrak. Astian 3 aldiz jaisten dira merkatu-plazara.

- 1747. urtian Andres de Iriondo bizi zan basarri honetan. Hori da basarrixaren gaiñian jaso ahal izan dogun aittamenik zaharrena.

- Juan zan gizaldixan *Barenetxe* basarrikuena izan zan eta oiñ 70 urte inguru *Partxuaneko* semia zan Felix Iriondo Astarloak, basarrixa erosi eta bertara ezkondu zan.

- Azken bost urtietan Lazpita-Agirregomezkorta familixia bizi da bertan.

- Basarri honetatik urten dan pertsonairik ezagunenetakua, *Umaixo Txistuaria* musikagille ospetsua izan da.

UNTZETA



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 210 metro

<p>Zer daken</p>	<p>Juana Bollar Mendiolea (72), Alberto Urkiaga Aurresti (45), Antonia Gorostidi Bollar (44), Aritz Urkiaga Gorostidi (20), Mikel Urkiaga Gorostidi (15), Itziar Urkiaga Gorostidi (143), Jose Antonio Gorostidi Bollar (33) eta Mertxe Egia Barruetabeña (31).</p> <p>ANIMALIXAK: Behiak (17, larrerakuak), manduak (2), bihorrak (2) eta izkua.</p> <p>ORTUA: Sasoiko barazkixak (astian behiñ jaisten dira plazara).</p> <p>LURRAK: 12 hektarea.</p>
<p>Datu aittagarrixak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gaur egungo Untzeta basarrixia hiru zatitan eginda dago. Sortaldera emoten dabena zatixa da berez basarrixia dana. Lehelengo aittamena 1625ekua da, oiñetxia da, eta 1683ko armarrixia daka ate gaiñian. Familixiak, beste papel batzuen artian, urte horretako "Arma Agirixa" daka gordeta. Barroko estilokua da eta Eibarren daguazten basarrixen artian ederrenetakua da. 1747xan Bartolome de Untzeta zan bertoko nagusixa. - Erdiko zatixa, 200 urte lehenagokua ei da eta jatorriz dorretxia zan. - Azkenengo zatixa, sartaldera emoten dabena, 1985ian jaso zan basarrixia haunditzeko. - Basarrixak sagardua egitteko dolaria daka. - Untzeta basarrixia beti egon da Untzetabarrenetxea eta Untzeta abizeneri lotuta. Azken mende honetan, Untzetako alabia Gorostiditar batekin ezkondu zanetik, Gorostiditarrak bizi izan dira bertan. - Basarritik alkate, militar eta eliz-gizon ugari urten da. Kirolarixen artian, manduekin ibiltzen dan Alberto Urkiaga, "Urkiaga" da ezagunenetakua.

ZELAIA / Zelaikua



Distantzia: 4 kilometro

Altueria: 290 metro

FITXA TEKNIKIA

Zer daken

Martina Ziarsolo Amillategi (76), Maria Teresa Mugerza Ziarsolo (44) eta Emilio Mugerza Ziarsolo (39).

Datu aittagarriak

ANIMALIXAK: Behiak (11).

ORTUA: Sasoiko barazkixak. Noixian behiñ jaisten dira herrira saltzera.

- Basarrixan lehelengo aittamena 1747kua da. Urte horretan Pedro de Azpiri bizi zan bertan. Dana dala, 150 urte lehenago, 1592xan, Anton b Zelaak odol garbixa zekala frogatzen zeban agirixa eskatu zeban Eibarren.

- Urtietan zihar Zela izenakin ezagutu izan zan, baiña juan zan gizaldittik hona Zelaikua izenakin da ezagunagua.

- 1955ian, Mallabiko Ortuzarretik etorritta, Mugerza-Ziarsolo familixiak erosi zeban.

ZESTEROKOA / Zesterokua

FITXA TEKNIKIA	Egoeria	Jausitta.
	Distantzia	5 kilometro.
	Altueria	405 metro.
	Datu aittagarrixak	<p>- Basarrixan lehelengo aittamena 1857kua da. 110 urte lehenagoko agiri batzuetan, <i>Setagingoa</i> izeneko basarri bat aittatzen da, baiña ez dakigu basarri bera dan edo ez.</p> <p>- Arrateko Amabirjiñiak hiru pausotan igo ei zeban Azittaindik Arraterako bidia. Lehelengo <i>Sum endixa</i> basarri aldamenian ipini zeban hankia; bigarren pausuakin <i>Lezeta Abeltxera</i> heldu zan; eta hirugarren pausua <i>Zesterokuan</i> emon zeban. Pauso bakoitxa emon zeban tokixan, santutxo bat ipini zeben. Horretako bat <i>Zesterokua</i> basarrixan parian dago.</p> <p>- Gerran erre egiñ zeben. Bertako familixia <i>Pagua Abeltxera</i> juan zan bizi izatera eta harrezkero basarrixa hutsik dago.</p> <p>- Arratera igotzeko bide zaharran aldamenian dago eta iturri ederra zekan onduan. Gaur egun hormak gelditzen dira, baiña teillatua lurrian dago.</p>